upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## COMPROMISOS DE LA UPNA CON PALESTINA

La Universidad Pública de Navarra expresa y reafirma su compromiso firme con la paz, con la convivencia, con la justicia, con los derechos humanos y con el rechazo de todo tipo de terrorismo y de violencia. Dichos comportamientos son contrarios a la naturaleza y los valores de nuestra Universidad.
La UPNA ha suscrito todos los comunicados realizados por la CRUE en los que se ha manifestado el rechazo a los trágicos acontecimientos que se han venido desarrollando en los últimos años en distintos puntos del planeta, como la invasión rusa de Ucrania, el ataque de Hamás del 7 de octubre y la invasión y ataque del ejército israelí contra la población de la Franja de Gaza.
Desde entonces, la situación en Gaza ha ido empeorando. Los ataques por parte de Israel han continuado, y el número de civiles palestinos asesinados ha seguido aumentando, siendo niños, niñas y mujeres las principales víctimas, pero también estudiantado y profesorado. La comunidad palestina ha sufrido la destrucción de todas las universidades gazatíes y de gran parte del resto de sus instituciones formativas, lo que conculca el derecho fundamental a la educación por varias generaciones. Se hace necesario un alto el fuego inmediato e incondicional, que ponga fin a las masacres de civiles, la situación de bloqueo y el corte de suministro de agua, alimentos, combustible y electricidad. Del mismo modo, es imperativo el respeto y el cumplimiento de las normas internacionales protectoras de los derechos humanos y el Derecho Internacional humanitario permitiendo la entrada en Gaza de toda la ayuda humanitaria que pueda proveerse para cubrir la emergencia de su población civil.
Ante esta situación, la Universidad Pública de Navarra, en el marco de sus competencias, y mientras no se produzca el cese de las

## NUP-EN KONPROMISOAK PALESTINAREKIN

Nafarroako Unibertsitate Publikoak konpromiso irmoa adierazten eta berresten du bakearekin, bizikidetzarekin, justiziarekin, giza eskubideekin eta terrorismo eta indarkeria mota guztien gaitzespenarekin. Izan ere, gure Unibertsitatearen izaeraren eta balioen kontrakoak dira jokabide horiek.
Azken urteetan munduko zenbait lekutan izan diren gertaera tragikoak gaitzestearren CRUEk egindako jakinarazpen guztiak sinatu ditu NUPek; gertaera horien artean daude Errusiak Ukraina inbaditu izana, Hamasek urriaren 7an egindako erasoa eta Israelgo armadak Gaza inbaditu izana eta hango biztanleen aurka egindako erasoa.
Orduz geroztik, okerrera egin du Gazaren egoerak. Israelek erasotzen segitu du, eta gora egin du hildako zibil palestinarren kopuruak ere. Biktima gehienak haurrak eta emakumeak dira, baina baita ikasle eta irakasleak ere. Komunitate palestinarrak Gazako unibertsitate guztien eta prestakuntzako beste erakunde gehienen suntsipena pairatu du, eta zenbait belaunaldik hezkuntzarako duten oinarrizko eskubidea urratzen du horrek. Hori dela-eta, behar-beharrezkoa da berehalako eta baldintzarik gabeko su-etena, bukaera emanen diona zibilen hilketari, blokeo egoerari eta uraren, elikagaien, erregaien eta elektrizitatearen hornidura-etenari. Era berean, nahitaezkoa da giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide humanitarioa babesten dituzten nazioarteko arauak errespetatzea eta betetzea, biztanleria zibilaren larrialdia babesteko eman daitekeen laguntza humanitario guztia Gazan sartzea ahalbidetuz.
Egoera horren aurrean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bere eskumenen esparruan, **HONAKO KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITU**, harik eta Israelgo unibertsitate eta erakundeek operazio militarrak bertan

operaciones militares o la condena firme de la violación de los derechos humanos por parte de las universidades e instituciones de Israel, **SE COMPROMETE A:**

**PRIMERO**. - Promover un programa específico de colaboración con la Agencia de Naciones Unidas para la Población Refugiada Palestina (UNRWA) en su inestimable labor de atención a los más de cinco millones de refugiados palestinos.

**SEGUNDO**. - Reforzar nuestro programa de atención al estudiantado y profesorado refugiado para atender de manera específica las necesidades de la población refugiada palestina.

**TERCERO**. - Explorar la posibilidad de incrementar nuestros convenios de colaboración con instituciones universitarias palestinas.

**CUARTO. -** Colaborar con ONG y otras organizaciones formales e informales que trabajan en torno a la defensa de los derechos humanos y la cultura de la paz. Ofrecer espacios de reflexión y debate, para colaborar en la restauración de la paz y el bienestar en la región, evitando cualquier expresión de odio.

**QUINTO**. - Impulsar iniciativas conjuntas en el marco de CRUE-Universidades para reclamar un alto el fuego inmediato en Gaza, y desarrollar programas que contribuyan a la recuperación de centros y programas de enseñanza universitaria palestinos.

**SEXTO**. - Revisar y evitar las relaciones comerciales o académicas con quienes no respeten los derechos humanos, el derecho internacional o las resoluciones de Naciones Unidas en torno a la situación de Palestina. En particular, no mantener relaciones con universidades y entidades israelíes que no muestren su rechazo explícito a los crímenes contra la humanidad que se están produciendo en Palestina.

behera uzten dituzten arte edo giza eskubideen urraketa irmoki gaitzesten duten arte:

**LEHENBIZIKOA**. - Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziarekin (UNRWA) lankidetza-programa espezifiko bat sustatzea bost milioi errefuxiatu palestinarri baino gehiagori arreta emateko egiten ari den lan ezin estimatuzkoan laguntzeko.

**BIGARRENA**. - Ikasle eta irakasle errefuxiatuei arreta emateko gure programa indartzea palestinar errefuxiatuen behar espezifikoak asetzeko.

**HIRUGARRENA**. - Palestinar erakunde unibertsitarioekin lankidetza-hitzarmen gehiago sinatzeko aukerarik ba ote den aztertzea.

**LAUGARRENA**. - Lankidetzan aritzea giza eskubideen defentsaren eta bakearen kulturaren alde lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeekin eta beste erakunde formal eta informal batzuekin. Gogoeta eta eztabaida egiteko guneak eskaintzea lurralde hartan bakea eta ongizatea berreskuratzen laguntzeko, eta gorroto-adierazpen oro saihestea.

**BOSGARRENA**. - CRUE-Unibertsitateak erakundearen esparruan ekimen bateratuak bultzatzea Gazan berehalako su-etena eskatzeko, eta programak garatzea Palestinan irakaskuntza unibertsitarioko ikastegi eta programak berreskuratzen laguntzeko.

**SEIGARRENA**. - Harreman komertzial eta akademikoak aztertzea eta halako harremanik ez hastea giza eskubideak, nazioarteko zuzenbidea eta Nazio Batuek Palestinako egoeraren inguruan emandako ebazpenak errespetatzen ez dituztenekin. Bereziki, harremanik ez edukitzea unibertsitate eta erakunde israeldarrekin baldin eta ez badituzte esplizituki gaitzesten Palestinan gizateriaren kontra egiten ari diren krimenak.